



BiziON

Zaintza Plan Estrategikoa
Plan Estratégico de Cuidados

ehbildu

0. SARRERA	7	3.3.1. Adineko pertsonen behatokia	34
1. ARABA ETA GASTEIZKO DEMOGRAFÍA	13	3.3.2. Adineko pertsonen bulegoa	35
1.1. Errealitate demografikoa Araban eta Gasteizen.....	15	3.3.3. Prebentzio radarra	38
1.2. Nor izango da dependentea?.....	17	3.3.4. Etxez etxeko laguntza zerbitzua	39
1.3. Zer nolako errealitate demografikoa daukagu Gasteizen eta Araban?	18	3.3.5. Elikadura	40
2. DIAGNOSIA. Arabako Lurralde Historikoko adinekoak zaintzeko tresnak.....	19	3.3.6. Adineko pertsonentzako eguneko zentroak. .	42
2.1. EGOITZAZ KANPOKO ARRETA.....	22	3.3.7. Adineko pertsonen zaintzarako alojamendu baliabideak.....	43
2.2. EGOITZA-ARRETA.....	25	4. KRONOGRAMA.....	51
3. ZAINZA PLAN ESTRATEGIKOA	29	5. AURREKONTUA.....	53
3.1. Printzipioak.....	31	6. ERANSKINAK.....	55
3.2. Helburuak.....	33	7. BIBLIOGRAFIA.....	57
3.3. Baliabide mapa	33		

«Gaur egun dugun zaintza sistemaren oinarria da familian zaintza behar bat sortzen den aldiro pizgarriak eskaintzea emakumeak enplegutik ateratzeko, euren gain har ditzaten haurren zaintza, eta baita ere etxean bizi eta dependentzia egoeran daudenen pertsonena. Gizonek ez dute zaintzarik egiten, zaintzatik aldenduta daude, eta ez dago zerbitzu publiko nahikorik. Gobernu batek eskura du kontu hauek konpontzea, soilik zerbitzu publikoa beste norabide batean jarrita».

María Pazos Morán



0. **SARRERA**

Zaintza krisi baten aurrean gaude.

Krisi hau islatzen da zaintza sistema tradizionalen hondoratzean eta erantzun instituzional baten faltan, eta eragin du egungo zaintzak desegokiak, eskasak, eta prekarioak izatea, eta ez modu askean aukeratutakoak. Bi arrazoi direla medio, zaintza krisiak eztabaida politikora jauzi egin du: erronka demografikoaren testuingurua, eta pandemiak agerian utzi duen zaintza krisi honen ikusgarritasuna.

Covid-19aren krisiak azaleratu ditu zer nolako baldintzetan konpontzen diren luzera begirako zaintza beharrak. Epe labur, ertain eta luzera begira planteamendu bat egitea beharrezkoa da geure errealitatea eraldatzeko, geroz eta behar handiagoak izango dituen etorkizun baten aurrean.

Mugimendu feministak urteak daramatza esaten zaintza krisia egiturazkoa dela eta aspalditik datorrela. Covid-19 pandemiak sortu duen krisiak eta bere kudeaketak egoera horretan sakondu baino ez du egin. Bizitzaren ahuldadea erabat geratu da agerian, geure interdependentzia sakona. Momentu erabakigarria da patriarkatuak eta kapitalak bizitzaren aurka eramaten ari diren borrokan, eta datozen urteotan hartuko diren erabakiek geure etorkizuna nabarmen baldintzatuko dute.

Pertsona guztiok zaintzak beharko ditugu geure bizitzaren joanean, intentsitate ezberdinak izango dituztenak unearen edo bizi egoeraren arabera. Zaintzak dira bizitzaren sostengarritasunerako oinarria. Hori dela eta, esaten dugu bizitzak erdigunean jartzeak zaintza ereduaren eraldaketa ekarri behar duela, eta, azken finean, geure egungo antolakuntza sozial eta ekonomikoarena: zaintzarena da aurrez aurre dugun erronka handienetako bat.

Erronka handia da gaur egun zaintzak duen antolakuntza ez delako nahikoa eta oso bidegabea delako: banaketa oso desorekatua da, zamaren parte handiena familien bizkarrean erortzen da, eta horietan emakumeak dira zaintza egiten dutenak, parte handi batean doan, gainera. Guzti honek ondorio sakonak ditu emakumeen bizitzetan, dagoeneko klase zapalkuntzak edo egoera administratiboak bezalako beste aldagai batzuk baldintzatzen dutena: erretiratu arte euren bizitzan pobretze etengabekoa, parte-hartze soziopolitikorako aukera gutxiago, edo osasun okerragoa, besteak beste.

Ez dugu soilik behar zaintzari buruzko ikuspegia zabaldu, baizik eta bidea egin behar dugu euskal zaintza sistema publiko-komunitario batera, ikuspuntu nazional, feminista, intersektional eta komunitario batekin. EH Bildun hori da defendatzen duguna: Euskal Herrian eta Euskal Herrirako pentsatu eta erabakitzea nola nahi dugun bizitza zaindu. Erronka erraldoi bat, aldaketa erradikal bat exijitzen duena; aurrera egin behar dugu zaintzak demokratizatu eta kolektibizatuko duten politika publiko eraldatzaileetan, eta eredu berri baten

oinarriak jarri, honezkero mahai-gaanean ditugun premiei aurre egiten diegun bitartean: pertsonen beharrei arreta jarri, zaintza publikoak, unibertsalak eta duinak eskainiz.

Gaur arte zaintzak gutxietsi dira, zeregin horiek beti hartu dituztelako euren gain, batez ere, emakumeek, ordainik gabe. Horregatik aldaketak egiteko unea da. Zahartze demografiko etengabea eztabaida politikoaren erdigunean jarri da azken urteetan. Bizitza luzearen demokratizazioaren arrakastak, eta jaiotza tasen murrizketak — neurri handi batean lan eta erresidentzia prekaritatearen ondorio — geure populazio piramidearen egitura eraldatu dute. Emakumeei zahartzearen ‘arazoaren’ errua leporatzen dizkieten — eta euren gorputzak eta bizitzak erabili nahi dituzten — irakurketa apokaliptiko eta jautzan oinarritutako erantzunetatik urrun, Euskal Herria Bildun uste dugu ‘ugalketa iraultza’ honek aurrez aurre jartzen dizkigula herri bezala heldu beharko dizkiogun hainbat erronka. Besteak beste, luzera begirako geure egungo zaintza ereduaren eraldaketa.

Herrialde mediterraneoetan gertatzen den bezala, geure ereduak ‘familiarista’ izaten jarraitzen du. ‘Emakume armada’ batek — familien barruan edo etxeko enpleguaren bidez — zaiantza lanak konpontzen ditu modu ikustezin eta eraginkor batean, bai, baina, zeren truke? Eragin ugari dituzte zaintzek horretan ari direnentzako: orainaldiko autozaintza beharrezkoaren sakrifiziotik, etorkizuneko kalte eta dependentzia ekonomikoraino, ordainik ez duen lan bat egin izanagatik.

Azken hamarkada honetan zaintza lanen eskuordetzeari eman zaion erantzun instituzionalak merkantilizazioaren formarik muturrekoena hartu du: txeke-zerbitzua. Honek zaintzaren ‘gurpil zorua’ larriagotu du. Baliabide gutxien dituztenek aukera eskasagoak dituzte zaintzak eskuratzeko, eta, hori dela eta, gaian hartu behar duten zama handitzen da, eta modu horretan ukatzen zaie — zaintza denborajale oso handia baita — espiral honekin apurtzeko baliabide handiagoak lortzeko aukera. Gainera, milaka emakumeren muturreko lan prekaritatearen bizkarrean sostengatuta dago merkantilizazioa, ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik.

Covid-19aren krisiak errealitate hau azaleratu du: milaka emakume ustiatuta ari gara zaintza beharrak konpontzen, dela erakundeetan, dela merkatuetan, edo dela etxeetan. Krisia azaleratu da eta larriagotu da, orain euren bizitzak eta euren familienak arriskuan jarri behar izan dituztelako.

Premiazko aldaketa politikoak eskatu ehar ditugu, zaintza politika publikoen etenik gabeko hondatzeari eta prekarizazioari aurre egiteko. Kasu honetan, Araban adineko pertsonen arreta emateari dagokionez. Pandemiaren ondorioak gehien pairatu dituen kolektiboetako bat da. Osasun egoerak eragin du, baina baita ere azken urteotako joera neoliberalak aldatu ez duen kudeaketa batek, egoera larria izan arren: prekarizazioa, pribatizazioa, edo eskubideen ukazioa arau izan dira. Joerak bereziki kolpatu du zaintza sektorea, sektore feminizatua eta oso prekarizatua lan arloan.



Egungo egoeraren irakurketa kritiko honetatik eta geure ardura politikotik abiatuta, adineko pertsonen arreta emateko plan baten proposamena egiten dugu. Premiazko neurriak jasotzetik aparte, eredu aldaketa baterako behar ditugun oinarriak aditzera eman nahi ditu plan honek.

A photograph of a person with grey hair, wearing a red quilted jacket, a beige knit hat, and purple-tinted sunglasses. They are sitting on a wooden bench, looking towards a fountain in a park. The background is a blurred park scene with trees and a fountain. The text "1. ARABA ETA GASTEIZKO DEMOGRAFÍA" is overlaid in white, bold, sans-serif font.

1. ARABA ETA GASTEIZKO DEMOGRAFÍA

Biztanleria zahartzen ari da. Edozein garaitarako baliagarria den baieztapen horrek inoiz baino esanahi handiagoa du gaur egun.

Gure bizi-itxaropena handitu egin da azken hamarkadetan, eta hala jarraituko du. Biztanleriaren zahartzea arrakastatzat hartu behar dugu: bizi-kalitatearen hobekuntza, aurrerapen medikoak, osasun- eta ekonomia-politiken arrakastak... Horregatik, orain gizarte gisa dugun erronka onartu behar dugu, eta zaintza-gizarte baterantz aurrera egin. Orain, bizi-itxaropena handitze horri bizi-kalitatea eman behar zaio.




Eurostaten arabera, Europako biztanleriaren % 13k 80 urte edo gehiago izango ditu 2080an, gaurko datuen bikoitza baino gehiago. Euskadin, 2050ean, biztanleriaren % 32k 65 urte baino gehiago izango ditu.

Hori errealitate bat da, eta, beraz, pentsatu behar dugu ea prest gauden aldaketa demografiko horri aurre egiteko eta pertsona guztiei bizi-kalitate egokia eskaintzeko. Eszenatoki berri baten alde egitea tokatzen zaigu, bizitza erdigunean dagoen eszenatoki baten alde egitea. Bizi-kalitatea proiektu politiko gisa.

1.1. Errealitate demografikoa Araban eta Gasteizen

Has gaitezen ematen geure gizartearen etengabeko zahartzeari dagokion dimentsioa. 2020. urtean Arabako populazioaren %21,1ek, 70.473 pertsonak, 65 urte edo gehiago zituen. Nahiz eta historikoki hau izan erabili den muga pertsonen bizi zikloaren azken zatia ezartzeko, bizi itxaropena handitu denez, muga hori igotzea komeni da. Hala, 2020. urtean populazioaren %6,4k, 21.200 pertsonak, 80 urte edo gehiago zituen. Adin tarte horren hazkundeak, irizpide erlatiboak eta osoak aintzat hartuta, gora egin du. 2000. urtean populazioaren %17k, 54.981 pertsonak, 65 urte edo gehiago zituen, eta %4,9k, 15.515 pertsonak, 80 urte edo gehiago zituen. Proiektzio demografikoei jaramon eginez gero, 2031. urtean populazioaren %27k, 91.200 pertsonak, 65 urte edo gehiago izango ditu, eta %9,2k, 30.900 pertsonak, 80 urtetik gora izango ditu. Azken finean, bi hamarkada eskasetan 80 urtetik gorako populazioa bi aldiz handiagoa izango da Araban, eta hazkunde horri eutsiko zaio ziur asko datozen hamarkadetan.

¹ Kontuan hartu behar dugu erabilitako proiektzioa Covid-19k kolpatu aurretik egindakoa dela. Izan ere, 2020. urteko hirugarren hiruhilekoan jaiotza kopurua %8,9 murriztu da Araban.




Erraza da aldaketa honen dimentsioari buruz jabetzea Arabako populazio piramidearen eboluzioari erreparatuz gero (fig. 1). Ikusten dugu urte gutxi batzuen buruan piramidea alderantzikatuko dela oinarria estutuz eta erpina zabalduz. Hala, geure gizarte osoaren zaintza beharrak lekualdatu dira dependenteak diren adin txikikoen populaziotik adinez nagusi den populazio dependente batera. Aldaketa honek halaber eragin behar du politika publikoen orientazioa berrikustea.

Errealitate demografiko hau ez da homogenea herrialde guztian. Izan ere, Araban populazioaren lekualdatze handi bat gertatu da landa eremuetatik hiriburura. Prozesu honi lotuta landa eremuetako populazioa zahartu da, eta hori handitu da adineko pertsonei zuzendutako egoitza pribatuak zonalde horietan kokatu direlako.

Hala, Gasteizko populazio piramideak baditu berezitasun batzuk, Arabakoarekin alderatzen denean. 65 urte edo gehiago dituen populazioaren pisu erlatiboa, 53.749 pertsona, herrialdekoa baino pixkat handiagoa da (%21,2). 80 urte edo gehiago dituen populazioari dagokionez 15.969 pertsona, harreman hori alderantzizkoa da (%6,3).

- 2 'Dependente' hitza erabiliko dugu eguneroko bizitzan oinarrizkoak diren jarduerak egiterako orduan beste pertsona baten laguntza beharrezkoa denean. Hortaz, ez gara soilik mugatuko 39/2006 Pertsonen autonomia pertsonalerako eta dependentzia egoeran daudenen arretarako Legeak dioen irizpideari. Azken hauek aritzeko, 'dependente bezala balioztatutako pertsonak' erabiliko dugu, edo, bestela, dituzten graduak aipatuko ditugu.

Gasteiz, pirámide de población, 2020 (por 10.000)



Populazio piramidean ikusten diren ezberdintasun horietatik aparte, erreparatu behar zaion beste eraldaketa bat badago: banakako elkarbizitza unitateak haditzen ari dira. Etxebizitzen heren batean pertsona bakarra bizi da, eta horietatik %34an 65 urte edo gehiago dituzten pertsonak dira.

Azken finean, errealitate honi ezin zaio bizkarra eman. Aldagai demografikoak argiak dira, populazioa zahartzen ari da, eta geuretzako lehen mailako erronka da arreta publiko eta kalitatezkoa eskaintzea.

1.2. Nor izango da dependentea?

Adinaren arabera diskriminazioa edo 'adinkeria' diskriminazio mota larrienetako bat da geure gizartean, sexismoarekin eta arrazismoarekin batera. Diskriminazio hau adinekoak senil eta etxe nahiz medikuntza arreta behar duten pertsona gisa estereotipatzetik abiatzen da, eta zahartzea inboluzio bat bezala ikusten du, gaixotasunak eta aje fisikoek ezaugarritzen duten bizitzaren aro bat.

Alderantziz, errealitatea oso bestelakoa da. 65 urte edo gehiago dituzten pertsonen %85ek bizitza erabat autonomoak ditu; proportzio hori %73ra jaisten da soilik 80 urtetik gorako kasuan. Hala, adineko pertsonen dituzten zaintza beharren benetako dimentsioa kokatzeaz gain, datu hauek agerian uzten dute dependentzia egoera edo arriskuaren prebalentzia tasa murrizteko dagoen erronka. Zahartze aktiboaren estrategia batek ahalbidetuko luke pertsonen dependentziarik gabe igarotzen duten bizitzaren parte handitzea.

Zahartzen ari gara, hori hala da, eta, hortaz, geure buruari galdetu behar diogu: prest gaude erronka honi aurre egiteko eta pertsona guztiei kalitatezko bizitza eskaintzeko? Egiteko unea da, egoera berri bat zabaltzeko, non bizitza erdigunean jarriko dugun. Zaintza duinak eta kalitatezkoak proiektu politiko gisa.

1.3. Zer nolako errealitate demografikoa daukagu Gasteizen eta Araban?

Errealitatearekin zerikusirik ez duen adineko pertsonei buruzko ikuspegi bat dago:

IKUSPEGIA	ERREALITATEA
Zahartzea inboluzio gisa Adinekoa berdin senila Zahartzaroa arazo fisikoez eta gaixotasunez beteriko biziara gisa Egoitza- edota osasun-arreta etengabearen beharra	PERTSONA AUTONOMOAK: • 65 urtetik gorakoak % 85 • 80 urtetik gorakoak % 73

Horregatik, hautsi egin behar ditugu adinekoei buruzko estereotipoekin, baina, batez ere, edadismoarekin. Edadismoa gure gizartearen hirugarren diskriminazio mota handiena da, arrazakeria eta sexismoaren ondoren. Horregatik, garrantzitsua da zahartze aktiboan oinarritutako estrategiak azpimarratzea, optimizazio- eta konpentsazio-estrategietan zein bizitza ziklo osoko ikaskuntzan oinarrituta, pertsonari eta ingurunearekin duen interakzioari protagonismoa emanez, autozaintza eta autoestimuaaren sustapenaren bidez. Horrela, adinekoei emandako estereotipoak hautsiko ditugu.

2. DIAGNÓSTICO.


**Prestaciones y servicios
destinados a la atención de las
personas mayores en Araba**



Adinekoei arreta emateko zerbitzuen helburu nagusia izan behar da kalitatezko arreta ematea, eskubideetan oinarritua eta haien interes eta beharretara egokitua. Helburua adinekoak euren etxeetan ahalik eta denbora luzeenean eta baldintza egokietan egon ahal izatea da, betiere hori nahi badute. Zerbitzu horiek bizi-baldintzak bermatu behar dituzte, baina ez ikuspegi asistentzialista, paternalista edo infantilizatzaile batetik. Arreta integratzaile eta inklusiborako tresna gisa planteatu behar ditugu, parte-hartzea, prebentzioa eta mendekotasunaren arretan modu naturalean lan egitea sustatzeko.

Dokumentuan zehar, adinekoei arreta emateko gizarte zerbitzuek izan duten bilakaera aztertuko dugu. Bilakaera desberdina izan da zerbitzu motaren denboraren arabera, baina jarraibide komun bat ezarri da: **plazen pribatizazioa eta falta**. Horri beste kontzeptu bat gehitu behar diogu, duela hamarkada batzuetatik adinekoei arreta emateko eredu bera errepikatzea eta berrikuntzarik eza.

Araban kontuan hartzeko datuak: 2011tik 2018ra 61 plaza sortu dira Araban. Aldiz, 382 laguntza ekonomiko berri daude adineko



personentzako egoitza-arreta estaltzeko, lekurik ez dutelako eta egoitza-espazio berririk sortu ez dutelako.

Gizarte zerbitzu bakoitzeko plazen hazkunde motela ez da nahikoa biztanleriaren aldaketa demografikora egokitzeko. Eta

horri arretaren low cost eredu gehitu behar zaio. Negozio merkatu berri bat, zaintzena. Zaintza eredu aldatzeko unea da.

Azterketa bat egingo dugu egoitza arretaren edo egoitzaz kanpoko arretaren arabera.

2.1. EGOITZAZ KANPOKO ARRETA

Adinekoak euren ingurunean mantentzeko programak.

Arabako Lurralde Historikoan, egoitzakoak ez diren zerbitzu hauek ditugu:

- Eguneko arretarako landa zentroak: 2007an Araban 140 plaza zeuden, baina 10 urte hauetan eskaintza handituz joan da, gaur egun 214 plaza izatera iritsi arte. Igoera hori gorabehera, ez da nahikoa izan, dagoen itxaron-zerrendaren ondorioz.
- Eguneko arreta egoitzetan eta landa eremuko etxebizitza komunitarioetan: 2007ko egoitzetako eguneko arretako plazak eta gaur egungoak alderatuz gero, murriztu egin dira. Gaur egun 23 plaza daude, eta batez besteko arreta 10 pertsonakoa da.
- Asteburuko eguneko zentroak (atseden programa): 2007an 30 plaza zeuden gure lurraldean, guztiak Gasteizen, foru eskumenekoak. 2010ean, Gasteizko Udalak 40 plaza sortu zituen, eta gaur egun 70 daude Gasteizen.
- Eguneko zentroak: 2007tik 2018ra plaza gehiago daude. Plazen sorrera hori ekimen pribatura mugatzen da, eta dauden 592 plazetatik % 70 pribatuak dira. Gainera, bere garapena oso

irregularra denez, Kuadrilla batzuk tokirik gabe geratzen dira.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: 80ko hamarkadaren erdialdean hasi zen zerbitzua gure lurraldean. 2008. urtean, 4.923 adinekoi eta desgaitasuna duten pertsonen ematen zitzairen arreta. Mendekotasuna duten pertsonen 2. eta 3. mailako arreta Foru Aldundiak ematen die, eta 1. mailakoa, berriz, Udalak. Zorroari buruzko Dekretuan araua aldatuta, zerbitzuaren kudeaketa osoa esleitzen da udal eskumen gisa. Hala eta guztiz ere, gaur egun erakunde arteko berrantolaketa prozesuan dagoen zerbitzua da. Eskaera urtetik urtera handituz doa, eta, beraz, baita kostea ere. 2020. urtean prekarizazio eta murrizketa saiakerak bizi izan ditugu. Zerbitzu hori zainketarako oinarritzko tresna da eta izango da, baina aldatu egin behar da. Zerbitzua udaletan banatzea eta duintzea.
- Familia Ingurune Zainketarako Prestazio Ekonomikoa (FBPE): prestazio hori 2007. urtearen amaieran hasi zen garatzen, erregelamendu bidez. Prestazio horren batez besteko erabilera 4.500 pertsonakoa da.
- Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE): 2014an hasi zen prestazio hori ematen: 26 pertsona izan ziren, 4 urtetan, eta 288 onuradun izan ziren. Laguntzaile pertsonalaren figuraren antzekoa da, baina oso gutxi garatuta dago adinekoen arretan.

- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa: 2010ean 753 pertsonak jaso zuten prestazio hori, eta 2018an 1.398k. Zer dira prestazio horiek? Aldi baterako Mendekotasun Legean zehaztutako laguntza ekonomikoa dira, zaintza zerbitzu bat eskuratzea ezinezkoa denean.
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (atseden-programa): 2008an 135 pertsonak jaso zuten laguntza hori, 2018an 199 prestaziora iritsi arte.
- Azken bi prestazio horiek diru-esleipen gisa sortu ziren, harik eta pertsonak dagokion arreta-plaza izan arte. Baina, praktikan, erantzukizunaren eskuordetza bihurtu da, eta ez da egoitza- edo arreta-plazarik sortu.
- Horien erabilerari eta zuzkidura ekonomiko horien hazkundeari buruzko datuek oso datu kezagarria ematen digute: 1.000 plaza baino gehiago behar dira adinekoei arreta emateko.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Eguneko Arretarako Landa Zentroak	159	169	170	178	191	211	211	214	214	214	214
Eguneko arreta egoitzetan	26	30	23	19	20	20	20	20	20	20	23
Landa eremuko etxebizitzak	75	75	75	75	75	75	75	75	75	58	58
sad	4103	3252	2482	2469	2525	2198	1999	2051	2485	2516	2376
Eguneko Zentroak (atsedena)	30	30	70	70	70	70	70	70	70	70	70
PECEF			4078	4640	4212	4045	4181	4330	4636	4584	4558
PEAP		26	26	26	26	26	26	140	201	246	288
PEVS			753	1025	749	761	842	742	904	1408	1398
PEVS (atsedena)	135	249	185	238	202	202	207	230	184	223	199

		2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Eguneko Zentroak		327	318	318	450	475	504	492	570	577	577	577	592
Araba	Orotara	327	318	318	450	475	504	492	570	577	577	577	592
	Publikoa-Udalak	40	0	0	133	13	133	133	131	133	133	133	133
	Publikoa –Foru Aldundia	283	159	159	313	338	338	328	358	358	358	358	358
	Pribatu kontzertatua edo PEVS	4	159	159	4	4	4	8	16	2	39	26	17
	Pribatu kontzertatu gabea	0	0	0	0	0	29	23	65	84	47	60	84

Gasteizen zerbitzu hauek ditugu

- Adinekoen zentro soziokulturalak: 2008an 23.400 adinekori ematen zitzairen arreta. 2019an, 35.378 pertsona artatzen ziren. 2021ean beste zentro bat ireki arte, 16 dira.
- San Prudentzio eguneko zentroa: hasieratik 40 plaza ditu, udalaren espazio fisiko batean kokatuta, baina foru kudeaketarekin, eta berrantolaketa prozesuan dago.

- Eguneko arreta zerbitzua: 2008an 147 plaza zeuden hiriko sei zentrotan. 2009an eta 2010ean plazak murriztu ziren, eta 2014tik 131 plaza daude. Eskaria gorabehera, ez da gorakadarik izan.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: 2005ean, 1.105 pertsonari eman zitzairen zerbitzua; hurrengo urteetan, berriz, erabiltzaileen kopuruak gora egin zuen, 2012. urtera arte. Urte horretan, artatutakoen kopuruak behera egin zuen bat-

batean, sarbidean irizpideak aldatu zituztelako. Lortutako azken datuak adierazten digu 1.691 adineko artatzen direla Gasteizen. 2020. urtean ikusi dugu zerbitzu hori zalantzan jartzen ari dela, ez balioagatik, baizik eta kosteagatik. Garrantzitsua da aipatzea zerbitzu horrek funtzionatu duen urteetan arreta-orduak nabarmen murriztu direla, eta horrek zaintzak eta langileen lan baldintzak prekarizatzea ekarri duela.

ELIKADURA

- Adinekoentzako jantokiek nutrizioaren ikuspegitik janari osoa eta egokia baino gehiago eskaintzen dute. Gune horietara joaten diren pertsonen bizikidetza eta integrazioa bultzatzen dute. 2008an 9 jantoki zeuden hirian, 428 plaza guztira. Urte horretan 89.172 otordu eman ziren. 2009an, jantoki bat gehiago ireki zen: 10 jantoki eta 508 plaza. Urte horretan, 89.172 otordu eman ziren. Ondorengo urteetan, gero eta otordu gehiago egin dira. Lortutako azken datuen arabera, 2017an beste bi jangela ireki ziren, 12 jangela, eta 157.215 otordu eman zituzten.
- Etxeko elikadura, Gasteizko Udalaren beraren datuen arabera, "2015. urtean maximora iritsi da". 2020an 200 pertsonako itxaron-zerrenda dago.

Ondorio gisa, 2005etik plazak sortzeko geldialdia azpimarratu behar dugu, bai eguneko arretan, bai egoitza-zerbitzuetan. Plazak antzekoak dira 2005etik, eta, aldiz, Gasteizko biztanleriaren zahartzea etengabe hazten ari da. Beharrezkoa da plaza gehiago sortzea, errealitate demografiko berrira egokitzeko. Eredua birplanteatu behar dugu. Zaintza publikoen aldeko apustu garbia duen estrategia behar dugu. Zerbitzu sozialak eta zaintzak ezin dira negozio berria izan, adreiluaren negozioa ordezkatzen duen negozioa.

2.2. EGOITZA-ARRETA

Arabian, egoitza-arretako modalitate hauek ditugu:

- Landa eremuko etxebizitza komunitarioak: 2008an, 7 etxebizitza komunitario zeuden, 75 plazarekin. 2017an, etxebizitza komunitarioak Amurrio, Asparrena, Espejo, Guardia eta Kanpezuko landa-eremuetara murriztu ziren; 17 plaza galdu ziren, berreskuratu ez direnak.
- Egoitza zentroak: 2007an 2.662 egoitza-plaza zeuden, eta 2018an, berriz, 3.282. Igoera hori plaza pribatuetan gertatu da, baina bat ere ez publikoetan.

Egoitza-plazen eskaintza pribatuak gora egin du urte hauetan, eta handiagoa izan da itunpeko plaza pribatuen edo PEVSen bidez finantzatutako plazen eskaintza. 2007an 250 plaza ziren, eta 2018an, berriz, 891.

Argitaratutako azken datuen arabera, 2018an 3.282 plaza zeuden gure lurraldean:

- 779 foru plaza publikoak dira
- 567 udal plaza publikoak dira.
- 891 plaza pribatu itunduak edo PEVS bidez finantzatuak dira;

azkenik, eskaintzarik altuena plaza pribatu hutsak dira, 2018an 1.045 plaza izanik (lurralde osoan).

Gaur egun Kuadrilletako plazak aztertuz gero, Gasteiz da plaza gehien eskaintzen dituen eremua (2.366 plaza), gero Aiaraldea dago (236 plaza), Gorbeialdeak 215 plaza

ditu (guztiak pribatuak), Lautadak 175 plaza, Arabako Errioxak 128 plaza eta Añana (105 plaza) zein Mendialdeko (52 plaza) kuadrillek plaza gutxien dauzkate.

		2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Egoitza-Plazak Orotara		2.662	2.743	2.714	2.807	2.910	2.940	2.882	2.915	3.022	3.087	3.127	3.282
Araba	Orotara	2.662	2.743	2.714	2.807	2.910	2.940	2.882	2.915	3.022	3.087	3.127	3.282
	Publikoa-Udalak	559	491	567	567	569	569	553	550	547	557	556	567
	Publikoa –Foru Aldundia	794	1.011	811	811	796	798	798	798	790	780	780	779
	Pribatu kontzertatua edo PEVS	250	554	739	755	821	869	887	854	853	993	1.029	891
	Pribatu kontzertatu gabea	1.059	687	597	674	724	704	644	713	832	757	762	1.045

Gasteizen egoitza-zerbitzu hauek ditugu.:

- Adinekoentzako apartamentu babestuak: 2008an 231 plaza eta 7 zentro zeuden hirian. Ez da plaza-kopurua handitu, eta 2018tik

aurrera egoitza txikiak apartamentu bilakatu dira.

- Egoitza-zerbitzuak: Lehen datuak 2005. urtekoak dira, 280 plaza baitzeuden bertan. Hurrengo urteetan, egoitza-zerbitzuek behera

egin dute urtero, eta 2019an 233 plaza baino ez daude, 41 gutxiago 2005etik.

- Etxebizitza komunitarioak: 2019ra arte 30 plaza sortu ziren horrelako baliabideetan.

BALIABIDEAK	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Adinekoen zentro soziokulturalak	14	14	14	14	14	14	14	14	14	14	14	14	15	15	15	15	15
	18.785	19.926	21.062	22.004	23.700	23.400	23.953	25.796	27.415	27.835	28.641	29.405	31.307	32.698	33.127	33.816	35.378
San Prudentzio eguneko zentroa	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40	40
Eguneko arreta zerbitzua	113	114	114	144	143	147	143	143	133	133	133	131	131	131	131	131	131
Ikasleak adinekoekin ostatu hartzea	8	8	9	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Apartamentu babestuak adinekoentzat	201	201	238	235	237	231	231	231	215	220	220	220	220	231	231	231	231
Egoitza-Zerbitzuak			280	280	280	280	280	280	279	279	278	278	274	274	274	274	233 (-41)
Etxebizitza komunitarioak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	30

Laburbilduz....

Lortu ditugun datuek ez dute interpretazio-tarte handia uzten, oso argiak dira. Adinekoei arreta emateko plazak eta zerbitzuak sortzea ez da egokitzen ari aldaketa demografikora. Adinekoek ez dute behar adina plaza eta zerbitzurik arreta jasotzeko.

Horri eredu mota gehitu behar diogu. Arreta-eredu pribatuetarantz aurrera egitea, zaintzen negozioa. Zaintzaren low cost eredu eta enpresa-onura ikusten ari gara kalitatezko zaintza publikoen aurrean. Pandemia honetako arreta-datuak argiak izan dira: makro zentro pribatuetaiko intzidentzia, etxebizitza komunitarioetako arreta-ereduen aldean. Eta hori guztia administrazioaren jardura faltan oinarrituta. Adinekoei arreta emateko espazio publikoen sorrera "zerbitzu-txekeen" bidez eskuordetu da (% 160ko igoera azken bosturtekoan). Horrek honako hauek sortzen ditu:

- Plaza publikoak sortzeko ardura ekimen pribatuaren esku uztea.
- Zaintzen eremu pribaturantz aurrera egitea: pertsonak/familiak prestazio bat jasotzen du zaintzeko edo zaintza modua bilatzeko. Zaintza publikoen sarearen sorreraren aurrean, zaintza prekarioetarako partida ekonomiko bat eskaini nahi da. Zaintza publikoen kontzeptuaren aurrean arlo pribatura jotzea.

Joera hori mantendu egiten da egoitza-plazetan, eguneko zentroetan eta espazio soziokulturaletan. Administrazioak ez dira ari beharrezko zaintza zerbitzu publikoak handitzen, zaintza sare publikoaren hedapena blokeatu dute, eta zaintza pribatua erabiltzeko prestazio ekonomikoa sustatu da. Low cost eredurantz aurrera egiten dute.

Horregatik, unea da zaintza- eta gizarte-eredua berriro planteatzeko, eta adineko pertsonen arreta emateko kalitatezko zerbitzu publikoak berriro sortzeko.

Erronka demografikoa bere gain hartzeko unea da, kalitatezko zaintza publikoen ikuspegitik. Gurea, egiteko modu desberdina baita.



3. ZAINZA PLAN ESTRATEGIKOA

Hainbeste entzuten ari garen zaintza krisia ez du pandemiak sortu. Urte luzez gertatu den prekarizazioaren, pribatizazioaren, edo bizi-itxaropena handitu izanari lotutako negozio berri baten sorreraren emaitza da, eta negozio guzti hori oinarri izan da zaintzaren prekaritatea. Hau da, adineko pertsonekin negozioa egin da.

Nahikoa da. Krisi honek balio behar du eredu aldaketak egiteko, zaintza krisi honetatik atera behar dugu beste norabide batera begira. Kalitatezko zaintzaren eta ardura publikoaren aldeko apustu bat behar da. Hori da geure helmuga zaintza publikoen gaian. Edonola ere, beharrezkoa da bide luze bat ibiltzea, pribatizazioaren urteetan atzera egin behar da, eta hori lortzeko ezarri behar ditugu erdibideko urratsak, zaintza publikoen etorkizun horretara iritsi ahal izateko.

Nola planteatzen dugu prozesu hau egitea? Zaintzaren kudeaketan joko arauak aldatuz:

- Kontratazio Legea: Klausula sozialak ezarri behar dira, zaintza eremuan irabazi asmoko ekimenei mugak jartzeko.
- Lankidetzaren esparru berriak martxan harri behar dira, egoitzen ituntzearekin, edota arreta plazak itunduta irabazi asmorik ez duten erakunde pribatuekin, kooperatibekin, edo fundazioekin.
- Ekimen pribatuen kudeaketa ereduak tutelatuta behar ditu eskumena duen erakunde publikoak..

Zerbitzuetara lotutako ordainen erabilera baldintzapekoa izango da. Arreta pribatuko espazioetan erabili ahalko dira, beti ere horien kudeaketa kalitatezko irizpide publikoen arabera tutorizatuta badago.

EH Bildun defendatzen dugu kalitatezko arreta eredu bat, parte-hartzailea, barneratzailea, baina batez ere pertsonen interesei eta borondateari egokituta. Pandemiak agerian utzi du orain dela urte asko hasitako zaintza krisia. Dependentsia Legea bezalako apustu garrantzitsuen bidez zainduak izateko beharra eta eskubidea ezagutzea lortu zen, baina hori nola gauzatu ez zen finkatu. Euskal Autonomia Erkidegoan garatu den ereduak pribatizazioa eta irabazi asmoa ekarri dizkigu. Zeuden zerbitzuetara egokitu ditugu pertsonak, zerbitzuak moldatzea bilatu gabe, eta arreta beharrei emandako erantzunak ez ditu aintzat hartu adineko pertsonen eskaerak: euren etxebizitzetan bizitzen jarraitzea eta eskubideekin bat datorren arreta eskuratzea. Hori dela eta, eredu berri bat mahai-gainean jarri behar dugu, zaintza paradigma berri bat sortu.

Adineko pertsonentzako geure arreta eredu nolako printzipiotan oinarritu behar da?

3.1.PRINTZIPIOAK

Adineko pertsonentzako geure arreta eredu nolako printzipiotan oinarritu behar da?

- **Bizi kalitatea:** LBizi kalitatearen kontzeptuak bere baitan barnebiltzen ditu pertsona batek bere bizitzari, etxebizitzari, komunitateari, lanari (edo eskolari), osasunari edo ongizateari buruz desiratzen dituen bizibaldintzak. Bizi kalitatea fenomeno subjektiboa da, pertsona bakoitzak duen pertzepzioan oinarritzen dena (bizi esperientzia, ezaugarriak, pertzepzioak...)
- **Pertsona ardatz duen planifikazioa:** Lankidetzaren prozesu bat bezala definitzen da, eta pertsonari, euren lehentasun eta balioetan oinarrituz, bizitza kalitate handiago bat lortzeko behar dituzten zerbitzuak eta babesak eskuratzen laguntzea du helburu. Estrategia multzo bat da, metodologia koherente bat burujabetza eskubideari zor zaion begirunearekin.
- **Babesen paradigma:** Babesek gaitasunekin eta testuinguruarekin duten interakzioaren emaitza da pertsona bakoitzaren funtzionamendua. Garapena, interesak eta ongizate pertsonala sustatzen dituzten baliabide estrategiak dira babes horiek, banakako funtzionamendua handitzeko helburuarekin. Nola gauzatu daitezke babes horiek?
 - Zerbitzu eta laguntza menu zabal baten sorrera, deszentralizatua, banakakoa eta nahikoa. Adineko pertsona bera da nahi eta behar dituen babesak aukeratzen dituenak.
 - Menu zabal anitz, malgu eta eraginkor eta ez burokratizatu batetik aukeratuko ditu pertsonak behar dituen babesak.
- **Eskaintza indartu behar da** (baliabide kopuruan eta horien kalitatean), aldakorra den eskaera baterako nahikoa eta egokia izan dadin.
- **Adineko pertsonak beren ingurunean segitzea:** Euren bizi kalitatea handitzeko beharrezkoak eta nahikoak diren babesak eskaini behar zaizkie, familiei, eta, bereziki, emakumeen gainean zama guztia utzi gabe. Etxeko zaintzak ardura publiko baten modura ulertu behar ditugu.
- **Parte-hartzea:** Eskubide bat eta balio bat izan behar du. Bermatu behar da bizitza sozial eta komunitarioan parte-hartzen segitzea eskubidea badelako, eredu egokitzatzen pertsona bakoitzaren behar eta lehentasunetara. Egiten diren jardueretan parte-hartu behar dute, euren diseinuan eta gauzatzean, beharrak antzematerakoan, etab..
 - **Parte-hartze sozio komunitarioa:** dBizi-esperientzia baliatu euren ingurune hurbilean, sozialki, ekarpenak egin ahal izateko.
 - Euren babes planen diseinuan, garapenean eta gauzatzean parte-hartu behar dute, gizarte zerbitzuetan euren ibilbidea hasten den momentutik.

3.2. HELBURUAK

Helburu orokorra: Eskubideetan oinarritutako babes sare publiko eta kalitatezkoa eskaintzea geure herrialdeko adineko pertsonei.

Helburu zehatzak:

- Geure herrialdeko adineko pertsonen autonomia sustatzea, euren bizitzako protagonistak izan daitezen azken egunera arte.
- Autonomia pertsonala sustatzea, eta espazio komunitario arrunten eta euren etxebizitzaren erabilera sustatzea segurtasun eta zaintza eremu gisa. Nahi ez diren bakardade egoerei aurre hartzea.
- Dependentzia moteltzea

3.3. BALIABIDE MAPA

ERROTUZ geure arreta eredua da oinarria. ERROTUZek bilatzen du gaur egungo arreta sozialen eredua iraultzea eta aldatzea. Helburua sistema jasangarri bat sortzea da, honako hauek lortzeko: egoitza batera lekualdatu beharra gutxitzea, bizitza modu autonomo eta

independentea sustatzea, pertsona bakoitzaren ingurunean arreta integrala bultzatzea, komunitatean zaintzarako sareak sortzea, gizarte zerbitzuen erabilera dakarren estigmatizazioa ezabatzea, eta erabiltzaile/bezero kontzeptua haustea.

ERROTUZ, azken finean, proiektu integrala da. Pertsonak zaintzen ardatz gisa kokatzeaz gain, zaintza horiek duintzea eta ikusaraztea du helburu. ERROTUZek anbulategi sozialak sortzea planteatzen du. Anbulategi horietan talde profesionalak egongo dira (hezitzaileak, gizarte langileak, fisioterapeutak, zaintzaileak...) pertsonen zerbitzura, haiek erabaki dezaten nola bizi nahi duten.

ERROTUZ proiektuaren helburu nagusiak dira::

- Prebentzioa sustatzea, lehen aukera gisa egoitzetara bidaltzearen aurrean.
- Pertsonen beharrei euren ingurune hurbilean arreta eskaintzea, euren jendearekin. Zerbitzuen deszentralizazioa, azken finean.
- Zaintza sare kolektiboak bultzatzea eta babestea, zaintzaileak zaindteza, gehienetan lanpostu feminizatu eta prekarizatuak direlako. Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileen baldintza profesionalak eta lanekoak hobetzea.
- Zereginak trukitzea: Pertsonak ezin dute izan administrazioaren bezero, baizik eta udala eta aldundia dira herritarren zerbitzura jarri behar direnak. Pertsona bakoitzari eskaini behar zaio bere bizitza

diseinatzeko aukera, eta erakundeen zeregina da beharrezkoa den laguntza ematea, ekonomikoa zein profesionala.

- Herrialdean oinarritzko gizarte zerbitzuak indartu, bereiztu, eta dibertsifikatu behar dira. Gizarte Zerbitzuetarako sarbidearen antolakuntzak ahalbidetu behar du profesionalak kalitatezko arreta eskaini ahal izatea, eta arreta hori eskatzen duten pertsonak berotasunez, kalitatez, banan bana eta modu komunitarioan ematea. Hori dela eta, gizarte zerbitzuak bi ildotan indartzea beharrezkoa da:

- Gizarte langileak handitzea: Gaur gaurkoz, gizarte langile batek esku artean duen dosier kopurua sekulakoa da, eta banan banako arreta eman ahal izatea zailtzen du, bakoitzari behar duen denbora eskaintzea trabatuz.
- Dibertsifikazioa: Babes behar ezberdinak kontuan hartua arreta emango duten profesional ezberdinekin hornitu behar dira oinarritzko gizarte zerbitzuak: fisioterapia, hezkuntza soziala....

Arreta sarea indartzeak ahalbidetuko du:

- Banan banakako arreta handiagoa eta espezializatua.
- Erabiltzaileak duen egoera, helburu, lehentasun eta beharren azterketa zehatzago baten bidez helburu eta behar propioak identifikatzea.

- Eskubidea duten baliabide, zerbitzu eta laguntzen azalpen zehatzagoa.
- Banakako Babes Plana modu parte-hartzaileago batean diseinatzea, erabiltzaileak berak aukeratuta eta kudeatuta.
- Lan proaktiboagoa egitea, beste baliabide batzuekin elkarlanean, eta komunitate, auzo, eta herri bakoitzean esku-hartuta.
- Banakako Babes Planaren jarraipena pertsona bakoitzaren neurritik egitea, sistema pertsonak dituen behar eta lehentasunetara egokitzea erraztuta.

Eredu honen azpian, filosofia honek egoteko modu berria ezarriko du adineko pertsonak arreta ematen dioten zerbitzu guztietan.

3.3.1. Adineko pertsonen behatokia

EH Bilduren ustez, beharrezkoa da espazio bat sortzea, behatoki / erabiltzaileen defendatzaile bat, administrazioek hartzen dituzten erabaki guztietan honako hauek betetzen direla bermatzeko:

- Pertsonak kalitatezko arreta eskaintzea
- Pertsonen iritzia aintzat hartzea. Ezin dugu soilik pertsonentzat lanean jarraitu, pertsonekin lan egiteko unea da.

Guzti hori dela eta, behatokia sortzea proposatzen dugu. Azterketarako, eztabaidarako, ekarpenak egiteko, eta elkarlanerako espazio gisa ulertzen dugu, benetako parte-hartzean oinarrituta, administrazioak adineko pertsonen arretan dauden ildo nagusiak betearaztera bultzatzeko:

- Bizi kalitatea
- Pertsonan oinarritutako planifikazioa: Eredua aldatu behar da, geure balioen eta erabakien arabera kalitatea emango diguten zerbitzu eta babesetarako sarbidea izan behar dugu.
- Babesen paradigma: Ongizatea handitzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini behar dira. Hitzetatik ekintzara pasatu behar dugu.
- Parte-hartzea: Geure bizitzaren protagonista izan behar dugu

Behatoki honek lan egingo du Adineko pertsonen arreta bulegoekin batera. Espazio horrek izan behar du adineko pertsona ororen erreferentzia, euren beharrak edo kezkak adierazteko lekua. Oinarritzko gizarte zerbitzu bakoitzak aintzat hartu beharko luke bulego honen aukera, eta zerbitzu horiek indartzeko lehen urrats gisa ulertu behar da.

Behatokia espazio independentea izango da, udal eta foru arduraren barruan, zerbitzuen sareak funtzionamendu egokia duela eta herrialdeko adineko pertsonen egoera egokia dutela zainzeko. Behatoki honek errealitatearen azterketa eguneratua izango du,

erantzun malgua ematea ahalbidetzeko. Radar funtzioa izango du pertsonen beharrak antzemateko, euren errealitatea ezagutzeko eta modu prebentiboan esku-hartu ahal izateko. Azken batean, zaindu beharko du arreta kalitatezkoa eta publikoa eskaintzen dela.

Adineko pertsonen gabeziak ezagutzea, euren arazoak aztertzea, izango da oinarria pertsona guztiei bizitza aktibo bat gozatzea ahalbidetuko dieten alternatibak bilatzeko.

Behatokiarekin batera, adineko pertsonen arreta emateko bulegoen proiektua abiatzea proposatzen du EH Bilduk. Bulego hauek ERROTUZ proiektuaren oinarria gauzatzeko aukera ematen dute hiri eta herrietan, adineko pertsonen begira. .

3.3.2. Adineko pertsonen bulegoa

Adineko pertsonen bulegoekin helburua litzateke horrelako espazio bat izatea hiriburuko auzo bakoitzean, oinarritzko gizarte zerbitzuen barruan kokatuta. Arreta kalitatezko eta ahalduzkoile bat eskaini ahal izateko profesional nahikoak izango dituen espazioa da. Gasteizi dagokionez, legealdi honetan hiru auzotan garatzea proposatzen dugu, esperientzia pilotu gisa. Demografia ikuspuntu batetik erreparatuta, uste dugu arreta eredu berri hau abiatzeko auzo egokienak izan daitezkeela Pilar, Zaramaga eta Arana. Halaber, herrialdeari dagokionez, Arabako oinarritzko beste zonalde batean ezartzeko aukera ontzat jotzen dugu.

Zer dira adineko pertsonen bulegoak?

- Oinarrizko gizarte zerbitzuetako arretaren lehen fasea indartzea: zerbitzu proaktibo bat, gizarte zerbitzuen barruan, adineko pertsoneri arreta ematen espezializatua.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuek sarbidea izaten jarraituko dute, lehiatila bakarra zerbitzuetan sartzeko, baina eskaintza honekin osatuko ditugu, adineko pertsonen arretarako diseinatuta.
- Justifikazioa:
 - Gizarte zerbitzuetan era guztietako pertsoneri eta egoerei ematen zaie arreta; oso egoera ezberdinak bizi dituzten pertsonak dira, arreta modu oso ezberdinak behar izaten dituztenak.
 - Profesional bakoitzak esku artean duen kasu kopurua oso handia da (batez beste 250 familia/pertsona artatzen ditu gizarte langile bakoitzak), eta arretarako denbora oso laburra da edota telefono bidezko harreman batera mugatzen da. Hitzordu batean 25 minutu daude prestatzeko, arreta emateko eta errolda egiteko; horren ondorioz zuzeneko arreta 10 minutura mugatzen da, eta tarte horiek are gehiago laburtu dira osasun egoera berria dela-eta.
 - Gaur egun, gizarte zerbitzuak udalak dituen zerbitzuetara bideratzeko daude prestatuta, eta pertsona baten

beharrak beste erakunde baten eskumena badira, horietara zuzentzen zaio. Ez dira adinekoentzako dauden baliabide guztiak kudeatzen, gehiegizko burokratizazioa sortzen da, eta lehiatilaz lehiatilako arreta nagusitzen da.

- Udal zerbitzu modura pentsatuta daude, eta ez pertsona bakoitzaren beharretan oinarritzen den zerbitzu integral modura.
- Burokrazioa gehiegi dute, eta baliabideen kudeaketara zuzentzen dira batez ere. Langileek ez dute denbora nahikorik banan banako arreta bat emateko. Ondorioz, adineko pertsona askok ez dituzte dagozkien balibideak eskuratzen, bizi kalitatea hobetu eta euren ohiko etxebizitzan segitzea ahalbidetuko dizkietenak.
- Ibilbidea:
 - Adineko pertsona bat oinarrizko gizarte zerbitzura doa, eta gainerako herritar guztiek duten sarbide berdina du zerbitzura.
 - Adinekoa denez, administrariak hitzordua eskainiko dio adineko pertsonen bulegoarekin. Bertan, hezkuntza sozialeko / lan sozialeko profesional batek behar duen arreta guztia eskainiko dio, beharrezkoak diren denbora, bitarteko, eta arreta ereduarekin.
 - Arreta hori 'bulego' batean eskaintzen zaio, adineko pertsonak dituzten beharretara egokitutako ezaugarriak izango dituena: espazioa, altzariak, giza baliabideak...



- Helburuak izango lirateke:
 1. Behar eta helburu propioak identifikatzea, eta aztertzea euren egoera pertsonala (bizi historia), helburuak eta lehentasunak.
 2. Azaltzea Eskubide dituen baliabide, zerbitzu, eta laguntza guztiak.
 3. Adineko pertsona horrekin batera Banakako Babes Plan bat diseinatzea, adineko pertsonak aukeratu eta kudeatuko duena.
- Behin plana diseinatuta, adineko pertsona, arreta eman dion profesionalarekin batera, oinarrizko gizarte zerbitzuaren bulegora joango da, eta bertan tramitatuko ditu behar dituen baliabideak eta babesak.
- Bestelako funtzioak:
 - Lan proaktiboa: Bulegoak ez du soilik itxaron behar gizarte zerbitzuen atera jotzen duten adineko pertsonak, baizik eta auzoko/herriko gizarte-etxean edo zentro soziokulturalean ere ariko da, bulegoa ezagutaraziz, horietara doazen adineko pertsonak ezagutuz... Auzoan/herrian esku hartuko luke, kalean, bertako eragileekin elkarlanean (auzo elkarteak, parrokiak), edo adinekoak elkartzen diren lekuetara joango litzateke (parkeak,

jolaslekuak, etab). Finean, kale hezitzaile baten antzeko funtzioak beteko lituzke, baina adineko pertsonentzako.

- Prebentzioa: Gaur gaurkoz, funtsezkoak dira pandemiak sortarazi dituen errealitate berrietara egokitzea eta malgutasuna. Behar berriak antzematen jakitea ezinbestekoa izango da bizi dugun ziurgabetasun egoeraren aurrean.
- Adineko pertsonen eskura dituzten baliabide guztien informazioa eskaini behar dute, eskumena norena den axola gabe.
- Bulegoa erabili ahalko da dependentzia balioztatzeak egiteko, edota Etxez etxeko langileekin bilerak / aurkezpenak egiteko. Zerbitzu batzuen deszentralizazioa bultzatuko da.
- Banakako jarraipena: Behin banakako plana diseinatuta eta martxan jarrita, adineko pertsonari laguntza emango dio horren jarraipenean, bere egoeran gerta daitezkeen aldaketak antzemango ditu, eta horiek gertatzerakoan babesak edo zerbitzuak aldatu behar ote diren erabakiko du. Jarraipen malgua egingo da, oso aldakorak diren egoeretara egokitzeko eta aldaketak martxan jartzeko aukera ziurtatuz.
- Oinarrizko gizarte zerbitzua indartzeko baliabide bat da, adineko pertsonen zuzenduta, baina zerbitzuaren barruan

egongo litzateke. Adineko pertsonen arreta ematea izango du funtzio nagusi (baina ez bakar), eta Adineko Pertsonen Behatokiarekin koordinatuko da. Arretaren lehen faserako diseinatu den indartzea da, sistema egokitzeko adineko pertsonen dituzten beharretara.

3.3.3. Prebentzio radarra

EH Bildun argi dugu prebentzio lan bat egiteko beharra. Bakardade egoerak, dependentzia hasierak, edo adineko pertsonen bizitza zailtzen duten arazo berriak garaiz antzemateko radar bat beharrezkoa dugu. Sortzen hasten diren beharrak garaiz antzemateko eta horien aurrean esku-hartzeko tresnak eta protokoloak eratu behar ditugu. Radar honek koordinatuta egon beharko luke osasuneko lehen arretaren sarearekin:

- Bakardadean eta babes sozialeko sarerik / familiarik gabe bizi diren pertsonen jarraipena egin
- Gizarte erakundeek arreta ematen dieten pertsonen jarraipena egin.

Prebentzio radar hau telefono edo harreman pertsonal zuzenean bidezko komunikazioan oinarrituko da, eta sare komunitarioak sortzen saiatuko da, adineko pertsonen lideratuko dituztenak zaintza komunitarioa bultzatzeko (auzo eragileak, gizarte erakundeak...), eta laguntza profesionala izango dute kasuen jarraipena egin ahal izateko.

3.3.4. Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Zerbitzu hau hobetzea ezinbestekoa da dependentzia atzeratzeko eta pertsonaren autonomia sustatzeko. Adineko pertsonak egoitza batera sartzen diren unea geroratzen duen baliabidea da, adinekoek euren etxebizitzan ahalik eta denbora gehien jarraitzea ahalbidetuz. Gaur egun, Arabako gizarteak ezagutzen eta aitortzen duen zerbitzua da etxez etxeko laguntzarena, geure herrialdean ibilbide luzea egin duena. Zaintzarako tresna funtsezkoa da, baina, aldi berean, zerbitzu degradatua eta prekarizatua izan da urte luzez, pribatizatuta. Egoerari buelta eman behar zaio orain. EH Bildurentzat lehentasunezkoa da zerbitzu hau eta bere profesionalak hornitzea eta dagokien balioa ematea, etxez etxeko laguntzarena adineko pertsonentzako zerbitzu erabilgarria eta eraginkorra izan dadin.

Zerbitzuaren helburua izango da zaintza eta babes integralak ematea, arreta jasotzen duten pertsonak euren etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, bizi kalitateari eutsita. Zerbitzu honen bidez profesionalak aukera izango dute antzemateko balizko ahaldadeak, osasun fisiko eta mentalaren okertzeak, edo nahigabeko bakardade egoerak.

Hastapenetatik pribatizatu den zerbitzu honek, apurka, publiko bihurtu behar du, eskumena dagokion udal erakundeak bere gain hartuta. Horretarako, zerbitzua ematen duten profesionalen lan baldintzak babesteko tresnak erabiliko dira, eta urratsak egingo dira zerbitzuaren publikatzeari begira.

Kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, etxez etxeko laguntza zerbitzuak nabarmen handitu behar ditu zuzeneko arretari eskaintzen dizkion orduak. Zuzeneko arretarako honako tarteak aintzat hartu beharko lituzke, oinarri gisa: 6 ordu astero 0 gradurako, 14 ordu astero I gradurako, 20 ordu astero II gradurako, eta 30 ordu astero III gradurako. Gradu guztiak handitzea posible izango da zaintza indartzea eskatzen duten ezohiko baldintzak daudenean. Garrantzitsua da nabarmentzea etxebizitza batetik beste baterako lekualdatzea ez dela arreta zuzen bezala zenbatuko, baina bai sartuko dela zerbitzu horretako profesionalak dituzten kontratu orduetan. Hori dela eta, abiapuntu modura planteatzen dugu arretako ordu bakoitzak 72 minutu izatea.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua ahaldundu behar dugu. Norabide horretan, bi kontzeptu erabakigarritan egin behar dugu aurrera:

- Zerbitzuko profesionalak eskumen publikoak garatzen dituzten langiletzat jo behar ditugu.
- Profesionalen lan baldintzak hobetu behar ditugu: txandak, baldintzak eta formakuntza antolatzeke beste modu bat behar dugu.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuak profesional nahiko izango ditu arreta ematen dituen pertsonen zaintza eta babes egokirako, eta langileen izaera tekniko dibertsifikatuko da, horren barruan aintzat hartuta psikologiaren profesionalak, fisioterapeutak, edo erizain laguntzaileak. Zaintza batzuk, batez ere dependentzia gradu altuenetan, eskatuko dute etxebizitza

batean profesional bat baino gehiago aritzea. Familiarekin lankidetzaz ezinbestekoa izango da, kalitatearen paradigma baten azpian, baina lankidetzaz horrek ezingo ditu inolaz ere bere gain hartu zerbitzuaren balizko gabeziak.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua arreta eta babes integralerako eredu izango da, arreta pertsonala eta etxekoa emateaz gain, babes fisiko eta psikologikoa eskainiko dituen, eta arreta jasotzen duten pertsonen aisialdia, berroneratzea eta ongizate emozionala sustatuko dituen. Azken batean, adineko pertsonen zaintza fisiko eta psikologikoa zainduko da. Etkez etxeko laguntza zerbitzuak erantzun integrala eman beharko dio arreta jasotzen duten pertsonen beharrei, nahi ez diren bakardade egoerei arreta berezia eskainita, konpainia kontzeptua tresna ezinbesteko gisa hartuta.

Arreta jasotzen duten pertsonen, familiaren (badin badute), eta arreta ematen duten profesionalen arteko koordinazioa ezinbestekoa da, arreta egokialortunahibadugu. Horretarako beharrezkoak diren bideak ezarriko dira koordinazio egoki bat bermatzeko etkez etxeko laguntza zerbitzuko profesionalaren,

erreferentziazko gizarte langilearen, lehen arretako osasun langileen, eta, beharrezkoa balitz, buru osasuneko zentroko langileen artean. Etkez etxeko laguntza zerbitzuko pertsona erabiltzaileen koordinazio ratioak 80 eta 100 kasu bitartekoak izango dira, eta lehen elkarrizketa bat egingo da etkez etxeko laguntza zerbitzuko langilearen eta erabiltzaileen artean, jarraipenaren hasieran. Diziplina anitzeko Arreta taldeen barruan gerontologia sartzeari beharrezkoa izango da.

Gaur egun, batez beste 240 egun igarotzen dira pertsona batek dependentzia balioztatze bat eskatzen duenetik irizpena egiten zaion arte. Zaurgarritasun eta babesgatasun egoera posibleak eragozteko adineko pertsonen artean, balioztatzea eskatzen den unetik eskuratu ahaliko dute etkez etxeko laguntza zerbitzua, behin betiko erabakia iristen den arte, 0 graduari dagozkion zuzeneko arreta ordu kopurua gutxienekoarekin, edota irizpide profesional batean oinarrituta, prebentzio gisa kalkulatzeko den bestelako kopuruarekin. Adineko pertsonen arreta ematen dieten bestelako zerbitzu eta baliabide guztiekin bezala, erantzunak eta eskaeren egokitzapenak azkartasunez eta malgutasunez egingo dira,

arreta jasotzen duten pertsonen uneoro kalitatezko arreta bat izan dezaten.

3.3.5. Elikadura

Elikadura bezalako oinarritzeko premia baten estatura arazo bihurtu da Araban. Batetik, eredu eta behar hau estaltzeko ikuspegi zabala baten faltaren ondorio da. Bestetik, 2015. urtetik aurrera Gasteizen adineko pertsonentzako jangelak gainezka egin dute, eta halakorik ez duten Arabako herrietan ez dago elikadurari arreta eskaintzen dion espazio publikorik. Uneotan eskaerak eskaintza gainditzen du, etxean elikadura jasotzea nahi dutenen itxaron zerrenda 200 pertsonatik gorakoa izanik.

Gasteizen adinekoentzako 15 zentro soziokultural daude martxan. (Aurten 16. bat gehitu beharko litzateke), eta horietatik bederatzik dute jangela zerbitzua. Araban badira 214 plaza Egunko Arretarako Landa Zentroetan, eta 23 plaza etxebizitza

komunitarioetan. Espazio horietan elikadura estaltzea dieta orekatu bat izatea baino gehiago da, badira ere espazio batzuk sozializatzeko, harremanak izateko, bakardadea gutxitzeko, edo okertzeari aurrea hartzeko. EH Bilduren proposamena da adinekoentzako zentro soziokultural guztietara zabaltzea jangela zerbitzua, legealdi honetan gutxienez hiru martxan jarrita, eta aukera ematea Landa Zentroetan zein etxebizitza komunitarioetan jangelak izateko.

Elikadura ereduaren berrikusketak harago jo behar du. Geure ereduak auzoko jangeletara jotzea izan behar du, eskaintzaren kudeaketa arin eta erraz batekin:

- Arina: Eskoletako janglekin gertatzen den bezala, 24 orduko aurrerapenarekin otordua erreserbatzeko aukerar emanda. Horretarako beharko litzateke:
 - Jangela bakoitzean kudeaketa arduraduna egotea (bestelako funtzioak ere beteko dituen, baina eguneko eskaerak kudeatzeko moduan egongo dena).
 - Jangela guztiek sukalde propioa egotea: kontsumo hurbila sustatzeko modu bezala, 0 Km-ko elikagaiak erabiliko dituen. Halaber, eguneko eskaeraren arabera beharrezkoa den menu kopurua gauzatuko duten sukaldeak dira.

- Erraza: Beharretara egokituta, eta tramite erraza izango dela bermatzeko beharrezkoak diren laguntzak indarrean jarrita.

Adinekoen zentroetako bazkideek jangela horietara sartzeko aukera izan dezakete, baina helburua litzateke jangela hauek lehentasunezkoak izatea adineko pertsonentzat, baina ez apartekoak. Hau da, zerikusi gehiago izango dute populazio osoari zuzendutako jangela komunitarioekin. Horren bidez eredu barneratzaile eta zeharkako baten alde lan egingo litzateke.

2030. urterako eikadura eredu berria martxan egoteko helburua dugu. Hiriburutik at, herrialdean zabaldu eta udalerri nahiz herri guztietarako iristeko beharko genuke:

- Herrian bertan eta populazio osoari zabalik dauden jangelak
- Populazio gutxien duten herrietan, jangela berdineko janaria banatuko da, eta adineko pertsonak aukera izango dute elikagaiak euren etxebizitzan eskuratzeko, edo herriak dituen bestelako gune komunak baliatzeko (txokoak, zentro sozialak, udal aretoak...), herriko beste pertsona batzuekin batera jan, eta sozializatu ahal izateko.



3.3.6. Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Eguneko arreta zentro hauek adineko pertsona guztiei zuzenduko zaizkie, dependentzia egoeran ego edo ez egon. Auzo edo landa zonalde bakoitzean kokatuko dira, bertan bizi diren pertsonei joan-etorri luzeegiak aurrezteko. Zentro hauek ez daude soilik pentsatuta elikadura, higiene, edo errehabilitazio beharrei erantzuteko, baizik

eta kontuan hartuko dute ongizate emozionala, eta nahi ez den bakardadearen prebentzioa, aisialdi eta denbora libreko ekintzak bultzatuta.

Baliabide hauetarako sarbidea malgua izango da, arreta jasotzen duen pertsonaren neurrikoa, eta ez arreta tarte finkoetara lotuta. Zentroen arreta ordutegia jarraia izango da 9:00etatik 21:00etara, astelehenetik igandera. Erabiltzaileek erabakiko dute zer ordutan eta noiz joan nahi duten.

Zentro hauek zonalde komunak izango dituzte, eta horietan ez dira adineko pertsonak dependentzia graduen arabera banatuko, ahal den neurrian ekintza bateratuak eskainita. Zaintza edo instalazio bereziak behar dituzten dependentzia gradu handienetarako, zentro hauek ekipamendu nahiko izan beharko lituzkete arreta egoki bat emateko.

Espazio guzti hauek langileak izango dituzte konpainia egin, eta zentrotik kanpoko tramiteak eta kudeaketak egiteko.

Adinekoentzako bestelako zerbitzuekin gertatzen den modura, baliabide horiek komunitatera zabalik egongo diren espazioak dira, belaunaldi arteko aisialdi jarduerak indartuta.

3.3.7. Adineko pertsonen zaintzarako alojamendu baliabideak

Araban, adineko pertsonen babeserako sarean, etxe baliabideek zeregin oso garrantzitsua betetzen dute. Oinarri gisa dituzten balioak dira gertutasuna eta arreta integrala, eta pertsona ardatz dute. Baliabide hauen xedea da adineko pertsonentzat alojamendu hauek etxe bihurtzea. Baliabideak hiru alojamendu ezberdinetan banatuko ditugu:

- Apartamentuak
- Etxebizitza tutelatuak
- Zaintza etxeak

Bakoitzak erantzungo die, intentsitate handiago edo txikiago batekin, arreta jasotzen duten pertsonak dituzten behar zehatzei. Espazio guzti hauek gutxieneko baldintza hauek izan beharko dituzte:

- Espazio irisgarriak izatea.
- Diziiplina arteko ekipoak izatea, 24 orduko arreta eskainiko dutenak, bertan bizi diren pertsonen eta espazio erabilgarriaren arabera.
- Oinarrizko printzipioak: autonomia, gizarteratzea, eta independentzia.
- Etxebizitza espazioak (etxe propioak bezala antolatuta), eta zonalde komunak harreman sozialerako. Jarduera soziokulturalak eta espiritualak.
- Elkarrekintza sozialerako laguntza eta nahi ez den bakardadearen lanketa.
- Bertan bizi diren pertsonetan oinarritutako programazioa.

Baliabide hauetan bizi diren pertsonak eta euren familiak subjektu aktibo izango dira erabakiak hartzerakoan. Etxe baliabide hauek formato txikikoak izango dira eta pertsona kopuru txiki bati arreta eskainiko dio, sozializazioa erraztuz, eta arreta eskaintzen duten langileekin konfiantza loturak estutzea ahalbidetuz. Alojamentu hauek aukera ematen dute eta indartzen dituzte zaintza komunitariorako espazio irekiak. Hau da, auzo edo herri bakoitzean kolektibo ezberdinen arteko aisialdi ekintzak sustatzea bilatuko da (eskolak, auzo elkarteak, ludotekak, borondate elkarteak).

Etxe baliabide guztietan, kopuru handiago edo txikiago batean, diziplina arteko ekipoak osatuko dira, bertan bizi den pertsonari arreta integratua eskaintzeko: geriatriaren profesionalak, erizainak eta laguntzaileak, psikologoak, langile eta hezitzaile sozialak, edo aisialdiko monitoreak. Ekipo profesional guztiek akredituta izan beharko dituzte ikasketak gerontologia eta geriatria alorretan.

3.3.7.1. Apartamentu tutelatuak

0 eta I dependentzia graduak dituzten adineko pertsonen zuzenduta. Espazio batean kokatutako alojamentuak izango lirateke. Espazio horrek bizitza independente bat eraman ahal izateko ekipamendu nahikoa dituzten apartamentuak izango ditu, baina baita ere zonalde komunak aisialdirako, jangelak, aretoak, gimnasioak, liburutegiak, etab. Apartamentu hauek

espazio komun horien ondoan pilatuko dira, eta, ahal den neurrian, terraza edo balkoi batekin.

Apartamentu hauen azken helburua da 65 urtetik gorako pertsonen arreta ematea, edozein dela arazoia euren etxean jarraitu ezin, eta babesgabetasun arrisku bat dagoen. Apartamentuak bertan bizi den pertsonaren arabera dekorazioa izango dute, eta berak nahi dituen objektuekin osatuko da. Alojamentu hauetan maskota batekin bizitzeko aukera egongo da. 'Taldeko etxebizitzak' dira. Hots, gehienez ere hamar edo hamabi apartamentu izango dituzte guztira, elkarbizitzarako zonalde komunekin batera.

3.3.7.2. Etxebizitza komunitarioak

I eta II dependentzia graduak dituzten pertsonentzako izango dira. Alojamentu hauek, asko jota, hamalau pertsona izango dituzte. Etxebizitza hauek arreta jasotzen duten pertsonen neurria ekipatuko dira, eta egoilar bakoitzak erabakiko du gelan bakarrik egon nahi duen edo nahiago duen gela partekatu. Gelak jangela komun batera irekita dagoen sukalde baten ondoak paratuko dira, eta alojamentu hauek, gainera, zonalde komunak izango dituzte aisialdirako, jangelak, aretoak, liburutegiak eta gimnasioa. Ahal den neurrian, kalera ematen duen lorategia izango dute, erabilera komunitariorako irekia, belaunaldi arteko harremana egon dadin. Etxebizitza komunitario hauek bateratu

beharko dute bertan bizi diren pertsona guztien intimitatea, eta etxearen barruko komunitate biritza.

3.3.7.3. Zaintza etxeak

Makroegoitzak lehenetsi dituen eredu baten aurrean, zaintza etxeak sustatuko ditugu. Zaintza behar handiagoak eta berezituagoak dituzten dependentzia gradu altuetako adineko pertsonen zuzenduta. Zaintza etxe hauek mugatuko dituzte egoitzek adineko pertsonetan dituzten ondorioak: euren bizitzako kontrola galtzea, eta, horri lotuta, despertsionalizazioa, autoestimaren galtzea, eta sare sozialen ahultzea.

Etxe hauek tamaina ertaina edukiko dute, eta, gehienez ere, 25 pertsonari arreta eskainiko diote. Banakako logelak izango dituzte, bertan dauden pertsonen beharrei erantzuteko ekipamendua izango dutenak. Etxe hauetan zonalde komunak egongo dira aisialdirako, jangelak, aretoak, liburutegiak eta gimnasioa. Arreta beharra dagoen arren, autonomia eta intimitate printzipioei eutsi behar zaie. Etxe hauek lorategia izan beharko dute, aisialdi eta belaunaldi arteko zaintza jarduerak bertan egiteko.

Euren arkitekturan, etxe hauek bateratzen dituzte dependentzia gradu altuak dituzten pertsonen behar duten arreta ziurtatzeko espazioak etxebizitza arrunt baten antz ahalik eta handiena

dituztenekin. Bertan bizi diren pertsonentzako eta familientzako espazio adeitsuak sortzea sustatuko da. Arretaren integritasuna izango da eredu honen oinarria.

Nola egokitu egoitzak zaintza etxe izateko? Badakigu ezin dugula egin egoitza eredu aldaketa erradikal bat, baina bai aurrera egin behar dugula euren kudeaketa publikoan eta egun duten egitura egokitzean. Etxeak sortzen dituen eredu batera igaro behar dugu. Egoitza txikiak edo zentro handiak ditugu, guzti horietan asko dago hobetzeko. Zentro balioaniztunetan bihurtu behar ditugu, egungo makroegoitzak hoguei pertsonentzako modulutan banatuz, barruan zaintza etxeak egiteko. Zeintzuk dira behar diren aldaketak?

- Espazio hauetan eskaintzen diren zerbitzuak handitu behar dira. Ez soilik bertan bizi diren pertsonentzako, baizik eta kanpoak bizi diren adineko beste pertsonen jardueretan parte-hartu ahal izateko, ordutegi finkorik gabe.
- Egoitzak ireki behar ditugu, euren etxebizitzetan jarraitzen duten baina zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen modu prebentiboan arnaguneak eskainiz.
- Herritarrek sartzeko aukera izango duten espazio komunak sortu behar dira, belaunaldi arteko eta komunitate elkarrekintzarako zonalde modura.

Eredu aldaketa bat ikusi behar dugu, prebentzioan inbertitzea ez da gastu bat, ongizatean inbertitzea da, eta gerora begira, zaintzaren

jasangarritasunean. Zer egiten ari da Gasteizen eta Araban, ordea? Eredu aldaketa honen beharra behin eta berriro ukatu. Hori dela eta, geure eredia prebentzioan inbertitzea da, etorkizunera begira kalitatearekin zaindu ahal izateko.

Adineko pertsonen arreta emateko geure eredian aldaketa demografikoa eta etorkizunera begirako errealitatea aintzat hartzen dira. Gaur egun, Arabako populazioaren %21ek ditu 64 urte baino gehiago, eta %4k, 80 baino gehiago. Hamabost urte barru, geure batez besteko bizi itxaropena 90 urtekoa izango da. Laugarren adinari buruz ari gara.

Zer ulertzen dugu laugarren adin bezala? Pertsonen bizitzaren azken fasea da, 80 urtetik aurrera irekitzen den epea. Laugarren adin hori, EH Bilduren aburuz, ez da adin fisiko batekin lotu behar, baizik eta pertsonen zaintza arreta handiagoa behar duten unearekin. Kronizitate eta dependentzia kontzeptuekin zerikusi gehiago du. Bizi itxaropenaren igoera horren jakitun izanik, inoiz baino garrantzi handiagoa hartzen du balizko gaixotasunei aurrea hartzea. Horregatik zaintza arretarako proiektua, eta zaintza etxeak bultzatzea, egoitzen ordeztu. Zaintza etxe hauetan bizi diren pertsonen euren bizitzaren azken unera arte pertsonen arteko harremanak izateko espazioak behar ditugu, batez ere edozein arazoia medio harremantzeko aukera gutxitu zaien kasuan. Horregatik, etxe hauetan konpainia erabakigarria izango da. Espazio soziosanitarioak sortzen aurrera egin behar dugu, dependentzia duten pertsonentzako ezarritako dagoen arreta eredu medikalizatuaren aurrean.

Adineko pertsonen egoitzen ituntzea

Kontuan hartuta adineko pertsonen arretarako Araban dagoen eskaera geroz eta handiagoa eta plaza publikoen falta, eta egoera horri erabat buelta eman arte, beharrezkoa izango da ituntzeari eustea, kolektibo hau artatzeko erantzun egokiena delako. Gaur arte soilik egoitza pribatuetan dauden plazen parte bat ituntzen da, eta, egunerokoan, itunduta dagoen plaza baten eta pribatu baten arteko aldea, arretari dagokionez, hutsaren hurrena da. Ezinbestekoa da kalitatea bermatzea adinekoei arreta ematen dieten baliabide guztietan, zaintzak homologatuko dituen arau baten bidez. Hori dela eta, EH Bildu prestatzen ari da egoitza zentroen ituntze foru arau baten proposamena, egoitza pribatu horiek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarriko dituen, administrazio publikoarekin zerbitzua itundu baino lehen.

Foru arau honi esker Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak plaza poltsa bat eskura izango du, arreta betebeharrak betetzen dituzten adineko pertsonak baliabide egoki eta eskuragarrietara bideratu ahal izateko.

4. KRONOGRAMA

Zerbitzua	Egungo legealdia	2026	2030
Behatokia	1		
Adineko pertsonen bulegoak	3	Denak	
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	72 minutu orduko	Publifikazioa	Publikoa
Jangelak	Elikadura indartzea	Jangelak zentro guztietan	Jangela eredu berria auzo/ hurbilketa
Zaintza etxeak	Espazioen azterketa	Moduluak	Eredu berria
Laguntzak		Laguntza hauek urtero %10 jaitsi Eguneko arreta gehienez ere 12 hilabete	Gehienezko iraupenaren konpromisoa

5. AURREKONTUA

	2021	Legealdi amaieran	Eredua
Behatokia	120.000€		
Adineko pertsonen arreta bulegoa	Proiektu pilotua 3 oinarrizko gizarte zerbitzu y landa eremu bat 50.000€	Gizarte zerbitzuen %50ean ezarrita	
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	300.000€ Formakuntza profesionala		
Elikadura	Gasteiz: 200 menu +	Eguneko arreta zentroetan sukaldeak indartu Sukalde eredua	Sukaldeak auzoka / landa eremuan
Zaintza etxeak	Makroegoitzen azterketa	Makroegoitzetan zaintza etxe moduluen ezarpena	Zaintza etxeak

6. ERANSKINAK

Eranskin I Bizkaia eta Gipuzkoako egoitza pribatuetako lan baldintzak

Egoitza pribatuak

	BIZKAIA	GIPUZKOA
Lanaldia formakuntza barne	2019, 1.658 ordu/urteko 2020, 1.638 ordu/urteko 2021, 1.618 ordu/urteko (1)	1.592 ordu/urteko
Oporrak	31 egun 15 y 16 eguneko bi tarteetan banatuta	31 natural o 26 laneko
Gaixoaldiak	Lan istripua, 100% Urte bat Gaixotasun arrunta, 85%, 10 egun/urteko	Lehenbizikoa, 100% Gainerakoak, 80%
Soldata	Oinarrizko soldata, 1.405,80€ Antzinasuna, 20€ 14 ordain Igandeak, 2,75€/h (2)	Oinarrizko soldata, 1.488,89€ Antzinasuna, 26€ 14 ordain Igandeak, 2,65€/orduko

7. BIBLIOGRAFIA

- Gasteizko Udaleko web orrialdea
- Eudel
- Gasteizko Udaleko Politika Sozialen departamentuko memoriak
- Dataraba
- Politika Sozialen Foru Departamentuko memoriak
- Eurostat
- Munduko Osasun Erakundea
- Eusko Jaurlaritza
- Pilares fundazioa

ehbildu



gasteiz.ehbildu.eus



gasteiz@ehbildu.eus



[EHBilduGasteiz](#)



[EH Bildu Gasteiz](#)



[EH Bildu Gasteiz](#)



[@ehbildugasteiz](#)



[EH Bildu Gasteiz](#)